

2018an erregistratutako langabezia

2018an zehar LANBIDEko bulegoetan 9.843 pertsona langabe gutxiago erregistratu dira. Horrek esan nahi du murrizketa balore erlatiboetan % 4,1ekoa izan dela, eta 232.079 langabe ezberdin egon direla urtean zehar.

• S E X U A

Azken urtean langabezian dauden erregistratutako pertsona kopurua bai gizonezkoen artean bai emakumezkoen artean murriztu egin da. Lehenengo artean % 5,8 jaitsi da eta bigarrenengo artean % 2,6 (105.954 gizonezko erregistratu dira urtean zehar eta 126.125 emakumezko). Gaur egun langabeen % 54,3 emakumeak dira. Krisia hasi zenean, aldiz, langabe kopurua berdintsua zen bi sexuetan, gizonezkoen artean langabezia orain baino handiagoa zen eta. Gizonezkoen artean krisiaren eragina handiago izan zen, baina talde hau errekupeazio ahalmen handiago erakusten ari da.

• A D I N A

Azken hilabete honetan langabetu kopurua adin tarte guztietan murriztu da. 25-34 adin tartean murriztu a gehien (% 6,9) eta gutxien 55-64 adin tartean (% 0). Urte arteko saldoan korrelazio handia ikusten da langabeziaren jaitsieraren eta langabezian dauden lan eskatzaileen adinaren artean. Langabeen % 42,5ak 44 urte baino gehiago ditu, % 31,1ak 35 urte baino gutxiago ditu eta gainontzeko % 26,3ak 35 eta 44 urteen artean kokatzen dira. Langabeak zenbat eta zaharragoak izan orduan eta zailtasun handiagoak dituzte laneratzeko. Ekonomia, egun, hobetzen ari bada ere, egiturazko langabezia handia utziko du krisiak langabe zaharren artean.

• J A R D U E R A E K O N O M I K O A

2018an zehar langabetu kopurua jarduera sektore guztietan murriztu da. Gehien eraikuntza sektorean murriztu da (% 12,4) eta gutxien zerbitzu sektorean (% 3). Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean % 2,7 murriztu da.

Datuak zehatzago aztertuta, langabezia jaitsiera handiena izan duen eraikuntza izan da 2.382 langabetu gutxiagorekin. Jaitsiera nabarmenak izan dituzten beste jarduerak ondorengoak izan dira: manufaktura industria (-1.654) eta merkataritza (-1.160). 2018an langabezia etxeetako jardueretan (+98) eta hezkuntzan (+75) soilik murriztu da .

• L A N G A B E Z I A R E N I R A U P E N A

Urte honetan, epe laburreko langabetu kopurua 3.080 pertsonatan murriztu da eta epe luzeakoa 6.763 pertsonatan. Balore erlatiboetan, ikusten da epe luzeakoa langabetuen kopuruaren jaitsiera % 7,1ekoa izan dela eta epe laburreko langabeena % 2,1ekoa. Ekonomiaren susperraldia, bada, aukerak eskaintzen ari da langabe kronifikatuenei.

• L A N G A B E T U E N K O K A P E N G E O G R A F I K O A

Azken urtean langabetu kopurua Gipuzkoan % 5,1 murriztu da (3.479 pertsona), Bizkaian % 3,8 (5.044 pertsona) eta Araban % 3,4 (1.319 pertsona).

Hiriburuak aztertuta, ikusten da Donostian jaitsi dela gehien langabetu kopurua balore erlatiboetan, % 5 (836 pertsona). Vitoria-Gasteizen % 3,6 murriztu da langabezia (1.088 pertsona) eta Bilbon % 3,3 (1.456 pertsona). Beste eskualde hauetan nabarmen egin du behera langabetu kopuruak 2018an: Ezker Eskualdean (-1.475), Bidasoa Behera (-500) eta Donostia Mendebaldea (-394).

2018an erregistratutako langabezia

• LANGABEZIA - PRESTAZIOA

2018an 71.200 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko urtean baino 1.636 langabe gutxiagok. Langabeen % 30,7k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubi-dea. 49.462 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren arabera prestazioa, hau da, langabeen % 21,3 dira horiek. 21.738 langabek (% 9,4), berriz, langabeziagatiko prestazioa jasotzen dute.

Aurreko urtearekin alderatuz, langabeziagatiko estaldura-tasak 0,6 puntu hazi da.

• IKASKETA MAILA

Langabeen % 56,7k (131.575 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken urtean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 5.974 langabetu gutxiago erregistratu dira. Talde horretan % 4,34 jaitsi da langabezia azken urtean, gehien murriztu den taldea izanik.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 9,2 dira. Talde horretan % 2,6 murriztu da langabezia azken urtean.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 44.100 dira, hau da, langabeen % 19. Talde hau 2018an zehar % 4,28 murriztu da.

Azkenik, langabeen % 15,1ek (35.125 lagun), egin ditu unibertsitateko ikasketak. Ikasketa maila hau dutenen artean % 3,6 murriztu da langabetu kopurua.

• JATORRIA

Langabeen % 15,7 (36.342 lagun), atzerritarrak dira. 2017arekin alderatuta, ikusten da atzerritar langabetu kopurua murriztu dela, % 1,6, eta bertakoak, aldiz, % 4,5.

Langabe atzerritarren % 30,5a Afrika iparraldekoak dira, % 26,7a Latinoamerikatik datoz, % 19,6a Europako Esparru Ekonomikotik, % 13,9a Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 6,1a, azkenik, Asiatik.

2018an erregistratutako langabezia

Lan-eskatzaille langabeak 2018an

	2018	2017	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	105.954	112.420	-6.466	-5,8
EMAKUMEZKOAK	126.125	129.502	-3.377	-2,6
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	20.346	20.380	-34	-0,2
GIZONEZKOAK	10.705	10.635	70	0,7
EMAKUMEZKOAK	9.641	9.745	-104	-1,1
25-44 URTE:				
GUZTIRA	113.056	121.077	-8.021	-6,6
GIZONEZKOAK	50.616	55.409	-4.793	-8,7
EMAKUMEZKOAK	62.440	65.668	-3.228	-4,9
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	98.677	100.465	-1.788	-1,8
GIZONEZKOAK	44.633	46.376	-1.743	-3,8
EMAKUMEZKOAK	54.044	54.089	-45	-0,1
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	4.733	4.917	-184	-3,7
INDUSTRIA	16.795	29.151	-2.382	-12,4
ERAIKUNTZA	27.441	19.177	-1.710	-5,9
ZERBITZUAK	158.138	163.007	-4.869	-3,0
AURREKO ENPLEGURIK GABE	24.972	25.670	-698	-2,7
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	37.853	39.172	-1319	-3,4
BIZKAIA	129.583	134.628	-5044	-3,8
GIPUZKOA	64.643	68.122	-3479	-5,1
EAE	232.079	241.922	-9843	-4,1